

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4886

1701/2020 EBAZPENA, urriaren 26koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Pedro Maria Ansola Zubiaurre jauna aldi baterako izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Pneumologiako Atal Sanitarioko buru, lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.

1762/2019, azaroaren 7ko Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Pneumologiako Atal Sanitarioko Buruaren lanpostua lehiaketaren bidez betetzeko.

Balorzio Batzordea aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Pedro Maria Ansola Zubiaurre jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Pneumologiako Atal Sanitarioko buru.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko, 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko, 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Pedro Maria Ansola Zubiaurre jauna Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Pneumologiako Atal Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Aldi baterakoa izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean xedatutakoarekin bat etorriz, eta data honetatik aurrera ondorioak izango ditu: 2020ko azaroaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitutakoan lanpostua utziko du, ez bada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango dute, alde aurretik kontrako espedientea badago, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Langileen Zuzendaritzari jakinaraziko zaie.

2020ko azaroaren 16a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, Ebazpen hau EHAAan argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Barakaldo, 2020ko urriaren 26a.

Lanpostu hutsagatik, zuzendari gerentearen urtarrilaren 1eko 3/2015 Ebazpen bidez.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari medikoa,
EDURNE OMAETXEBARRIA LEGARRA.